

Nu!

www.10.1111.com



Apirilaren 24an, Udarregin, "Zazpi gezur txiki" antzerkia



Islandiaraino iritsiko da
Zumarteko gazteen oihartzuna

Herriko sagardoa orain,
ALKARTASUNA kooperatiban
eskuratzeko aukera duzu

Iruin
Araeta
Saizar
Urdaira
Aginaga
Gorostidi
Aialde berri

Herriko sagardotegi
guzti-guztiak...



Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

www.noaua.com

Informazio interesgarriena gure web gunean

Eguraldi iragarpena, lan merkatua,
hemeroteka, agenda, albisteak,
inkestak, foroak, osasun zerbitzuak,
NOAUA! aldizkaria...



Eta orain, edizio jarraituan



URTINEA lorategia

Egun osoan zehar zabalik!

- Barruko eta kanpoko loreetan aukera zabala!
- Jardineria zerbitzua.
- Erramuak, koroak, lore lehorrak, tiestoak...

San Esteban auzoa Telf: 943 36 22 55 / 943 36 60 54



Txirrikitutik

Aste Santuko oporralditxo hauetaz gozatu ondoren, Aherentxe gaituzue berriz ere duela urte batzuk gure herrian jazo zenaz mintzatzeko eta zer baino hobeto 1999ko Aberri Eguneke ondoko argazkiari erreparatzen badiogu.

Argazkian ikusten duzuen moduan, garai hartako udaleko korporazioa udaletxeko sarreran ageri da. Alderdi abertzaleek bat egin zuten antolatu zen Aberri Egunean Independentzia aldarrikatzeko. Honako argazki hau 1999ko apirilaren 4an ateratzen, Aberri Egunean hain zuzen ere. Bertan ezkerretik hasita Luis Mari Ormaetxea, Jabier Pikabea, Izaskun Maiz, Karmele Hevia, Markel Olaizola, Lurdes Jauregiberri, Julian Beraetxe, Jose Luis Arrastoa eta Agustin Lizaso zinegotziak ageri dira. Zinegotzien aurrean Jose Antonio Altuna alkate ohia Independentziaren aldeko aldarrikapena irakurtzen eta honen aurrean berriz bertaratu ziren 200 bat herritar.

Garbi dago garaia aldatu direla. Dagoeneko udaletxeko baloitik Independentzia kartela kenduta dago eta azken urte hauetan abertzaleen arteko liskarrek, zatiketek, ilegalizazioek, gure herriko eta orohar, Euskal Herriko egoera politikoa eta soziala guztiz aldatu dute. Aurten esate baterako, herrian ez da inolako ekitaldirik antolatu Aberri Eguna ospatzeko. Txistu doi-



Egilea Noaua! K.E., 1999.04.04
Aberri Eguna, Kaleberri

Jabetza: Noaua! K.E.

nurik ere ez dut entzun kalean. Ez dira garai onenak. Etorkizunean beharbada, berriz ere horrelako argazkirik ateratzeko aukerarik izango ote da?

Zalao Arnaiz Ibaguren

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainar Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Islandiara joateko gogoz dira Zumarteko gazteak

Aurkibidea

ZUTABEAN, IDOIA TORREGARAI _____ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. URR.

AUTO-GIDARIENTZAT LEGEDI BERRIA _____ 10. URR.

ISLANDIARA BEGIRA _____ 12. URR.

Zumarte Musika Eskolako gazteek Islandiako Europa Cantat jaialdian hartuko dute parte



HERRIAN SORTU DEN MENDI ESPEDIZIOA _____ 16. URR.

XABIER UNDIANO, RALLY GIDARIA _____ 17. URR.

“GIPUZKOA ZURE ESKU” MAHAI-JOKOA _____ 19. URR.

EKITALDI GARRANTZITSUENAK _____ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



IDOLIA TORREGARAI

Garraio publikoa

Garraio publikoen erabiltzaile fina naiz, besteak beste, beste aukerarik ez dudalako. Baina hala ere, eta jendeak sinistu nahi ez badit ere, autobus eta trenean ibiltzea izugarri gustatzen zait. Zergatik? Arrazoi bat baino gehiago daude. Adibidez, bidaiaria egiten dudan bitartean irakurri edo lo egin dezakedalako. Azken urte hauetan zenbat liburu irentsiko nituen tunel eta tunel artean! Eta noski, garraio publikoek eskaintzen duten beste abantaila bat lo egin dezakezula da. Hori bai, aldamenekoaren sorbaldan babak uztea ez zaizu komeni, eta kristalaren kontra burukadak ematea saihestu beharra dago, treneko gainontzeko bidaiariak barrez lehertzen jarri nahi ez baldin badituzu behintzat.

Hala ere, gehien gustatzen zaidana jendea da. Bai trenean eta bai autobusean asko ikasi dezakegu pertsonetaz, eta bide batez entretenitu, izan ere, bidai-tramu horretan beraien bizitzako zati baten testigu mutu bihurtzen baitzara. Nork ez du inoiz aldamenekoaren elkarriketan belarria jarri? Hortxe topatzen zara azterketetara doazen ikasleekin, eta zuk ere trantze horretan ibiltzen zineneko garaia gogoratzen dituzu. Donostiara etxeak garbitzera doazen emakumeak ere hortxe joaten dira batera, gremio

berezi moduan, aurreko eguneko telebista-programa komentatzen edota eguraldiaren gora-beherak aipatzen. Badaude ere geltokia baino 300 metro lehenago altxatzen direnak, eta hori ikustean, gainontzeko guztiak par txiki bat egiten dugu (idatzi gabeko lege bat balitz bezala), izan ere, garraio publikoko profesionalentzat "noba-to" bat baita.

Trenetan oso fenomeno berezia gertatzen da geltokietara iristean. Nahiz eta treneko ateetan lehenengo atera behar dutenei utzi behar zaiela pasatzen jartzen duen, horrelako lasterketa ero bat sortzen da segundo eskas horietan: hau da, bai barrukoak eta bai kanpokoak batera hasten dira sartu eta ateratzen, eta ondorioz izugarriko iskanbilak sortzen dira: guardasola barruan utzi duela batek, besteari atea muturrean itxi zaiola... Honetan espezialistak adineko pertsonak dira normalean; izan ere, ia guztiak esertzeko toki bat nahi izaten dute eta une horietan Carl Lewis eta Cassius Clay-en arteko hibridoak bihurtzen dira. Hori dituk/n hori bultzadizoak!

Pasadizo gehiago badaude, baina horiek beste baterako utzi beharko ditut, zutabeak ez baitu gehiagorako ematen.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idolia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK ONARTU BERRI DUGUN ARAUDIA BETE BEHARKO DU.

HALA EZ BADA, **NOAUA!**k IDATZI HORI EZ ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: apirilak 30. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** apirilak 23.

e-posta bidez: erredakzioa@noaua.com

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, Inauteriak, **NOAUA!** Txiki, fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

Bazkide egin zaitetz!



36 euro urte osorako

Izena: _____

1.Abizena: _____

2.Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefonoa: _____

E-posta: _____

Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta **NOAUA!**ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321

Haur Eskola handitua izango da

Ikasturte berrirako matrikulazio kanpainak aurrikuspen guztiak gainditu ditu. 82 haur izan dira Haur Eskolara jo dutenak, baina Kalezarren dagoen egungo egoitzak ezin ditu guztiak jaso. Arazo hori gainditu asmoz, hiru gela berri eraikiko dira eta era hone-tan asetuko da eskaera-uholdea.

Veronika Manjarres Haur Eskolako hezitzaileetako bat da. Bere lankideak bezalaxe, Veronika ere harrিতa dago Haur Eskolara iritsi den matrikulazio eskaera kopuruarekin: *"martxoan matrikulazio kanpaina zabaldu genuenean, ez genuen horrelakorik espero"*. Aurrikuspen guztiak gainditu egin ziren. Eskaera eskaintza baino handiagoa zen, eta ondorioz, haur askok kalean geratzeko arriskua zuten. Honen aurrean, gurasoek udal ordezkariengana jo zuten irtenbide eske.

Berriki erabaki denez, adin bakoitzeko gela berri bat zabalduko da.

- 0/1 urtekoentzat, 12 haur gehiago jasoko dituen gela berri bat.

- 1/2 urtekoen artean, 20 haur gehiago izango dira 04/05 ikasturtean. Hauentzat ere, beste gela berri bat egingo da.

- 2/3 urteko haurrek Udarregi Ikastolara joateko aukera dute. Baina guraso gehienak Haur Eskolan jarraitzea erabaki dute. Hauentzat ere, beste gela berri bat eraikiko da.

Patioko arkupea itxi egingo da

Jolas patioa dagoen arkupea itxi eta bertan bi gela eraikiko dira: 0/1 zein 1/2 urteko haurrentzat.

Gaur egun jangela dagoen tokian, 2/3 urtekoentzako gela berri bat egingo da. Beheko solairuan ipiniko da jangela berria. Psikomotrizitate gela ere handitua izango da.



KALEZARREN DAGOEN HAUR ESKOLA TXIKI GERATU DA HIRU URTETAN.

Eraikinean ez ezik, pertsonal goan ere eragingo du egoitza-handitzeak. Veronika Manjarresek aditzera eman digunez, *"beste bi hezitzaile hartu beharko ditugu. Ratio batzuk bete behar ditugu eta ez ditugu aldatuko"*. Beraz, beste bi hezitzaileekin osatuko da Haur Eskolako langilegoa.

Datorren ikasturterako prest izango da

Udalak 300.000 euroko inbertsioa egitea erabaki berri du. Proiektua udal arkitekto teknikoak egin du eta obrak epe laburrean hasiko dira. Luis Mari Ormaetxea alkatearen esanetan, aurre-matrikulazioan eman zen eskaera-egokituko da Haur Eskola berria.

2004/2005 ikasturterako gauzatuko al da zabaltze-proiektua?

Hurrengo kurtsorako Udal Haur Eskolak izan duen aurrematrikula izugarria izan da. 82 ume, hain zuzen. Konparazio bat egiteko, 2003-04 kurtsosan 56 ume egon dira. Errealitate honek gogoeta batera behartu gaitu eta erantzun politiko bat planteatzera ondorioz, guzti hau oso epe laburrean.

Gure sensibilitate politikotik abiatuz, lehen tasuna ematen diogu emakumearen lan munduratzera eta famili bizitza uztartzeari. Honek, Haur Eskolaren proiektorekin aintzindari kokatzen gaitu, lehen, sortze-garaiko eztabaidetan, orain, proiektua gizarte errealitateari egokitu behar dugunean, eta gero, kontsolidatzekoan.

Azken asteetan, elkarrizketa emankor-rrak izan ditugu hezitzaileekin, gurasoekin, ikastola, politikoak, etabar. Guzti horrek ondorioztatu du, gai hau, gai estratejiko delako herriarentzat. Beraz, apustu politikoa egin behar zen, eta egin dugu: Haur Eskola aurrematrikulazio eskaeratarako egokituko dugu.

Obra hurrengo hilabetetan gauzatuko da eta 2004/2005 kurtsorako 95 plaza eskeiniko dira maila ezberdinetan banaturik.

Udalaren esfortsu ekonomikoa ez da makala: 300.000 euro, lehengo 50 milioi pezeta inguru.

Kasu honetan Udalak bere malgutasuna eta errealitateari egokitzeko gaitasuna erakusten ari du, baina, gogoetak jarraitu behar du: Hezkuntza, udal konpetentzi zuzena izan gabe, ze neurritan Udalak bereganatu behar du ardura hori? Beste Administrazioek ze ardura dute? Haur Eskolak etengabe hazi behar du? Autofinantzaketa lortu behar du udal ekarpenik gabe? Eusko Jaurlaritzak sortu berri duen Partzuergoan laga behar da zerbitzua? Haur Eskola dagoen eraikina

bere topera iritsi da?

Haur Eskolaren handitzeak eraginik izango al du aldamenen diren beste guneetan?

Kalezarko mojen eskola izandako eraikin horrek bi erabilpen izango ditu. Lehena Haur Eskola eta bigarrena Eguneko Zentroa. Haur Eskolaren zabalpena gaur egun biltegi moduan erabiltzen diren guneak eta aterpe batzuk erabiliaz egingo da. Musika taldeek erabiltzen dituzten gelak etorkizun batean Eguneko Zentroaren zabalpen baterako aurreikusiak daude.

Aldaketa honek nola eragingo du indarrean den udal aurrekontuan?

Lehen esan dudana moduan, Haur Eskola zabaltzea udalarentzat esfortsu garrantzitsu bat da, dirutan 300.000 euro. Horrek aurrekontua haunditzea eskatzen du. Haunditzea ez dugu egingo beste asmo batzuen kontura, beste inbertsioak mantenduko ditugu, eta inbertsio berri hau udal aurrekontua osatzerakoan kontutan hartu ez genituen diru sarrera berri batzuekin egingo dugu.



**AITOR
ALKORTA**

Txokoalde

Zer eraman behar du trenak?

Zuzenean harira joanez, auzoan igarotzen den karriletik at egin behar duten beste karrilaren inguruan idatziko det.

Entzungo zenutenez, bigarren karril baten proiektua dago auzoan eta badira dagoeneko udal txean Eusko Trenak bidalitako bi proiektu.

Bata azpitik pasa nahi dutena; eta bestea, aldiz, oraingoaren paralelo joango litzatekete.

Lehendabizikoa Oriotik honuntza abiatuta, Olaberrietako erreka pare hortan sartu eta Aginaga parean irtengo litzateke ostera Ilunbe baserri parean sartu eta Aldatxa baserri azpitik barrena Zañarrenea inguruan ostera agertuz.

Bigarrena aldiz, oraingoaren paralelo egingo lukete, karril guztia bistan doala, tunelik gabe alegia.

Honek zer ekarriko duen, bigarren proiektu hau onartuko balitz, nik uste ez dagoela asko pentsatu beharrik, ez? Auzotar bat baino gehiagoren etxeak botako lituzketela, baserritar bat baino gehiago

erriberarik gabe geratuko litzatekela... Hortik aurrerakoa nor berak ere pentsa lezake.

Lur azpitik doanak zer berriz? Zenbaterainoko tunel zarrak doazen kontutan hartuta... Desmonteak, lur mugimenduak, makinatzarrak... Eta amaitzen denean auzoa nola geratuko da? Karrilak bakarrik eraikiko al dituzte? Bigarren karril hori zertarako da, orain erdi utsik pasatzen den tren horretako bidaiariak bigarren tren hortan partitu eta biak hutsik joateko? Ez, ez, ez. Merkantzia bulztatu nahi dutela gaztiak! Beraz zer etorriko zaigun? Traka, traka, traka, traka, traka, luuuuuze zaratatuz eta etengabe bat 24 ordutan.

Azalpen hauek, noski, oso axalekoak dira, zehatzago zerbait jakin nahi duenak udaletxean du bi proiektuen berri, luze eta zabal.

Nik hemen bizitzen jarraitu nahiko nuke, eta zuek?

Bejondeigula ba.



**IÑAKI
AGIRRESAROBE**

Kaleberri


Hilaren 24an, bertso-afaria

Hilaren 24an, larunbata, gaueko 21:00etan bertso-afari paregabea dago iragarri. Bota Punttuba bertso Eskolak antolaturik, Maddalen Lujanbio eta Amets Arzallus ariko dira kantari Zendoia Tabernan. Txartelak bertan har daitezke. Bertsozaletasuna eta lagunartea gustuko duen orok ezin dezake aukera hau galtzen utzi.

Bestalde, nafarzaletasuna aldarrikatzen jarraiturik, datorren apirilaren 25ean Baigorriin "Nafarroaren Eguna" dago antolaturik. Nafar guztiok elkartzeko parada ezin hobea

da eta batzen omen gaituen lingua navarrorum-en sus-traiak non dauden jakiteko ere bai.

Herriko bertsozaleentzat ere, urteroko Santixabel Bertso-paper Lehiaketaren epea zabalik dago. Zortzitik hamar bertso bitarte idatzi behar dira, gai librean, eta izengoitiz sinaturik eta udaletxeko euskara ardura-dunaren bulegoan utzi behar dira ekainaren 26a baino lehen. Beste kartazal batean benetako izen deiturak idatzi beharko dira eta epaia jaietako bertso saioan emango da, ohi-turari jarraituz.



Aste Santua

Zer moduz Aste Santutako oporrak? Izango dira oraindik jai egunetan dabilzanak, ezta gazteak? Zuek bai zortea, baita irakasleek ere, eh!!!

Ikusi al dituzue prozesioak? Gogoan dut txikitan nere amandreak eta aita jaunak beren herrira eramanez nindutela Aste Santuko oporraldian, Salamancara hain zuzen ere, bertan ikusi nuen lehen aldiz prozesioa. Sekulako impresioa egin zidan tapa tapa zijoazten jende kopuru hura ikusteak, txano luze puntadunak eta guzti. Harrigarriena hanka hutsik zijoazten batzuk ikustea izan zen, odoletan, zergaitik egiten zuten hori? Azaldu zidaten penitentzia betetzeko egiten zutela, penitentzia? Zer da ba hori?

Bekatu eginez Jainkoa iraintzeagatik izaten den damu bizia eta berriro bekatu ez egiteko asmoa omen da. Kristauen artean, apai-zak aitortzaileari ipintzen dion zigorra. Kristauen artean egin dituen bekatuak ordaintzeko nork bere buruari ipintzen dion oinazegarri edo nekagarria ere bada. Beno, orduan kristauak ez direnak penitentziaz libre daude? Bekatuak barkatu gabe geratzen zaizkie? Hala ere uste dut badagoela penitentzia franko egiten duenik kristau izan gabe. Barkamena aurpegira eskatzea baino gauza zuzenagorik ba al dago ba? Horrelako sufrimendurik edota zigorrik pasa gabe. Beno horra hor bakoitza bere kontzientziarekin.

Kalezar



AINARA
URIBE

Birziklapena ez da espaloian egiten

Ordu-aldaketa izan genuenetik egunak gehiago disfrutatzen auzkerak daukagu orain. Hau nabarmen egiten da iluntze aldera, batez ere haurrak jolasean ari direla barre eta algarak entzuten baitira. Honek, gure auzoari nolabaiteko bizia ematen dio neguan ilunak eta hotzak diren kaleei.



Hala ere, badago zerbait aipatu gabe utzi ezin dudana. Beti dago zerbait gustukoa ez dena norbaitentzat eta duela gutxi iritsi zen nire belarrietara gertaera inozo baina esanguratsu bat. Seguruenik egongo da NOAUA!ko irakurleen artean gertaera hau tontakeriatzat hartu eta lerro hauen protagonismoa merezi ez duela pentsatuko duenik. Baina aipatzeko besterik ez dudanez, hori da.

Birziklatzea oso garrantzitsua dela deritzot eta gero eta gehiago gaur egungo egoera ikusita. Beharrezkoa dela iruditzen zait eta jendeak konpromiso hori hartzea txalotzen dut. Karobi taber-

naren aurrean birziklatzeko 3 kontainer aurkitzen dira, papera, beira zein plastiko eta abarrentzat. Batzuetan beteta egon ohi dira eta ez dago kanpoan uztea beste aukerarik. Baina goiz batez, hozkailu edo antzeko tamainako

beste tresna baten kaxa bat azaldu zen espaloien erdian. Nonbait, beronen jabeak, kontainerrean sartzerik ezin zuela ikusirik, ondoan uztea aurkitu zuen aukerarik egokiena. Izan ere, oso lanpeturik aurkituko zen horrelako kaxa handi bat tolestu edo puskatu eta kontainerrean barnean sartzeko. Hala ere, oinezkoen pasabidea erabat eragozten zuela jabetu gabe egin zuen nonbait.

Txorakeria edo ez, gertatu zen eta batek egin duena beste hainbatek egin dezake, beraz, ea kontu gehiagorekin egiten ditugun gure betebeharrak. Behin birziklatzeko konpromisoa hartuta ez gaitzen izan hain nagiak.

Atxegalde



AINARA
ARNAIZ



AGUSTÍN
ESNAOLA

Santutenea

Auzotarrak herriko meza santuetan

Auzotar batzuk Aste Santuko opor txiki hauek auzoan pasa ditugu. Batzuk etxean telebista ikusiaz, beste batzuk, Ibai-ondo elkartean lagunekin tertulian, baina beste talde jator batek meza santu garrantzitsuak ospatzen herriko eliz eder honetan.

Azkeneko talde honetan pertsona ezberdin batzuk elkartu gara. Batzuk San Estebango igandeko mezatara joaten direnak eta beste batzuk herriko meza nagusira joaten direnak, baina egun hauetan eliz nagusian izaten direnez ospakizun hauek, denak eliz nagusian elkartu gara. Eta guztiongan ospakizun eder hauen alaitasuna nabari zitzaigun aurpegian. Erramu igandean hasi ginen, Ostegun Santuan azken afariarekin jarraitu, Ostiral Santuan Jesusen heriotza ospatu eta Larunbat Santuan, ospakizun aparta batean, Jesusen Piztuera ospatu genuen. Kristauontzat urteko ospakizun garrantzitsuena eta ederrena izanik. Ospakizun guzti hauek Fedez eta Alaitasunez ospatu ditugula nabarmenduz.

Eskertu behar da parrokia inguruan, egun hauetan lanean jardun dutenen lana ere. Benetan lan bikaina egiten delako Usurbilgo Salbatore Parrokian antolatzen diren ospakizunetan, igandero ere, baina Aste Santuan egiten den saiakera nabarmena da. Horregatik eskertu nahi ditut, Parroko Jauna guztiaren buru delako, Liturgi taldea, Elizan apaintzen eta laguntzen ibiltzen direnak, eta bukatzeko korua eta organistak eskainitako abesti eta laguntzagatik. Guzti hauen lana eta herriko hainbat jenderen presentziagatik, guzti honegatik esan daiteke Usurbilen oraindik fedea ba dagoela, eta batzuek, alaitasunez, ospatzen dugula gure fedea.

Ospakizunen ondoren auzotar batzuek auzora oinez bueltatzen ginen, nahiz eta eguraldiak gehiegi ez lagundu, eta ospakizuneko edertasunetaz hitz egiten etortzen ginen. Hau izanik, kronika hau idazteko ideien iturria. Horregatik, nirekin batera oinez etorri diren auzotar maiteoi, esker mila ematea, kronika hau idazteko aukera eman didazuelako.

Udaberriaren eragina



SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Iritsi da, iritsi da azkenean udaberria eta pixkanaka-pixkanaka ari gara bere eragina somatzen.

Zuhaitzak berdetu dira, animaliak kantari hasi, alergiak gehitu, ... Azken finean, zer litzateke udaberria hau guztia gabe.

Eta udaberriak, esaera batek dioen bezala, odola berotzen digu, eta bizitzeko gogoia ere ematen digu, nolabait esateko. Irteteko gogoia, kirola egitekoa, eguzkia hartzekoa edota oihu egitekoa. Eta hori dena egiteko leku aproposa da gure auzoa. Hori dela eta, eta neguak agur esan bezain laster hasiko zaigu gure txoko hau apurka-apurka jendez betetzen. Honen guztiaren inguruan hitz egin nahi dizuet gaurkoan, izan ere, hemen goitik beste modu batera ikusten dira gauzak. Bai, San Esteban ez baita egun eguzkitsuak eta gau epelak igarotzeko leku bat soilik, gure auzoa, eta beraz, gure etxea ere baita. Hori dela eta, eskatu nahi dizuet zuek ere gure txoko hau zuena sentitzeko eta modu horretan tratatzeko.

Izan ere, urtero izaten ditugu arazoak jendearen

ohiturekin. Alde batetik izaten ditugu etxeko traste guztiak hona ekarri behar izaten dituztenak, baina gero itzuleran erdia hemen uzten dutenak, edota pare bat txuleta parrilan jateko asmoz igo eta ikatzik ez dutela ikustean zuhaitzetako egur eta inguruko zikin guztiak erretzen dituztenak ere, batere inportik gabe ingurukoek jasan behar izaten duten usaina eta naturari eginiko kaltea; hauez gain badira beren zakurrak hartuta igozten direnak ere, batere katerik gabe libre uzten dituztelarik, parkean ibiltzen den haur edo edonolako pertsonari kalte egin diezaiolarik, eta etortzen zaizkigu, azkenik, beren buruan haustea eta txikitzea baino buruan ez dutenak, hau da, parkea eta inguru osoa eder ikusteak mindu eta nolabait puskatu behar dutenak, eta hauen emaitza izaten da hainbat eta hainbat igandetan aurkitzen ditugun panoramak.

Honekin esan, leku izugarri bat dugula etxetik gertu, eta denok disfrutatu behar dugula, baina betiere errespetuz.

Eta animatu igozten.

Aste Santuan aztoratuta

Aste Santua iritsita, jendea zeharo aztoratuta dabilenaren usaina hartzen dut, 4-5 egun hauetan munduaren beste puntara doanik ere ezagutzen dut. Hauek alai dabiltza, hala ere, bada *mala-osti* aurpegiarekin dabilenik ere, oporrik ez dutenak hain zuzen.

Merezi al du bost egun triste hauetan, bete-bete egindako errepideetan pazientzia galtzea? Nire ustez bai, Euskal Herria ezagutzeko batik bat: Nafarroako landetxe galdu batean, edozein mendi tontorrean edo beste edozein txokotan, arnas pixka bat hartzeko oportxo aproposak irudi-



tzen zaizkit. Beraz, ea ondo-ondo pasatzen dituzuen egun hauek eta ez zareten etxean geratzen "Los 10 mandamientos" ikusten.

Aginaga



OXKAR
SANTAMARIA

Ez genuen besterik behar

Badirudi beti dagoela arazoren bat edo beste aldizkariaren atal hau osatzeko, auzoetan ezer gutxi gertatzen dela eta... Tira, Zubietan azken aldian ezin horrelakorik esan. Izan ere, alde batetik etxe berrien kontuarekin, egunak joan egunak etorri agian bertokak ez gara hainbeste jabetzen (ohitzen ere hasiak gara kamioi eta langileen joan etorriekin), baina kanpotik noiz-behinka datozenak aldaketa nabarmenaz ohartu eta harritu ere egiten dira. Etxeak egitura eta forma ezezik estalpea eta hormaz janzten hasiak dira, eta ohartzerako bizilagun berriak ere bertan izango ditugu.

Hori aldaketa gutxi izango eta orain errausketaplantaren kontuarekin etorri zaizkigu. Ez genuen besterik behar! Beste inon nahi ez dituzten gauzak Zubietan amaitu behar dutelakoan gaude herritar gehienok. Eta okerreana ez da hori,



baizik eta ez garela geu izango berau hemen ezarri edo ez erabakiko dutenak. Baina horretarako dago herri-erantzuna. Aurrekoan ere, bilera izan zen herrian, gaiaren inguruko puntu batzuk argitzeko, eta jende dexente azaldu omen zen. Hori eta Urnieta bezalako beste herrien erantzunarekin entzungo al da herritarrek benetan nahi duguna....eta nahi ez duguna.

Zubietan



OLATZ DE
MIGUEL

Adi, auto gidari!

Legedi berria udan sartuko da indarrean

Kamioi gidariak dagoeneko araudi berria betearazi behar dute. Auto gidarientzat, oraingoz, gomendagarria dena halabeharrezkoa bilakatuko da udan. Hona hemen araudi berriaren berrikuntza nabarmenenak.

Txalekoak

Hiru hilabete barru derrigorrezkoa izango da auto barnean eramatea eta gidaria autotik jaisten



denean jantzita izatea. Gainontzeko ibilgailuetan derrigorrezkoa da dagoeneko.

Txalekoa gorria, horia edota laranja bizia izan daiteke, CE hizkiak dituenak.

Eskuko telefonoa

Debekatua dago gidatzen den bitartean telefonoz hitzegitea, eskuak edota kaskoak erabili behar badira behintzat.

Gasolindegietan

Orain arte derrigorrezkoa zen autoari erregaia bota baino lehen argiak eta motorra itzaltzea. Orain, kotxeko irratia eta eskuko telefonoa itzaltzea ere derrigorrezkoa izango da.

Pantailarik ez

Debekatua geratuko da auto barnean telebista, DVDa, Interneta eta horrelakoak gidariak erabiltzeko moduan jartzeta. GPSa erabiltzeko pantaila jartzeta onartuko da.

Haurrentzat eserleku berezia

3 urtetik beherako haurrek euren pisu eta altuerarekin bat datorren eserlekua erabili beharko dute. Baita 1,50m-ko altuera ez duten pertsona guztiek ere.

Bizikletak

Derrigorrezkoa da kaskoa jantzita eramatea.

Aldapa gogorretan gora eta eguraldi oso beroa denean bakarrik onartuko da kentzea.

Gauz ibiltzeko, derrigorrezkoa izango da 150 metrora ikusiko diren elementu isladatzaileak erabiltzea, bai bizikletan baita jantzetan ere.

Binakako ilaran ibili ahal izango dute.

Ziklomotoreak

Azterketa tekniko pasatzea derrigorrezkoa izango da.

Motorrak

Orain arte ez bezala, autoak gidatzeko baimenarekin 125 cm³-ko motorra gidatu ahal izango da. Kotxeko baimena bost urtez edukitzea bermatu beharko da horretarako.

Plastikozko gidabaimena

Europako gida-baimena ezarri nahi da pixkanaka. Gida-baimena eskuratu edota berritzen dutenek, plastikozko txartela jasoko dute, gaur egungo papezkoaren orde.

Gida-baimena berritzea

Gida-baimenaren balioa bukatu baino 90 egun lehenago eska daiteke berritzea, epe-muga mantenduz.

Etxebizitzaz aldatu ezker, 15 eguneko epean trafiko delegazioan jakinarazi beharko dugu.

Praktiketako lizentzia

Azterketa teorikoa gauditua izan eta auto-eskolan gutxienez 15 klase praktikotik eman dituenak, praktikak egiteko lizentzia eska dezake. Horretarako, gidatzen bost urteko esperientzia duen pertsona bat izan beharko du aldamenean.

Tuneletan

Tunel barruan debekatua dago zentuz aldatzea, baita beste ibilgailu bati aurreratzea ere, baldin eta zentzu bakoitzerako errei edo karril bakarria badago.



GASOLINDEGIETAN KOTXEKO IRRATIA ETA ESKUKO TELEFONOA ITZALTZEA DERRIGORREZKOA IZANGO DA.

KODE PENALA GOGORRAGOIA IZANGO DA

Kartzela zigorra eta lan sozialak

Droga edota alkoholaren eraginpean gidatzen duenari 3 eta 6 hilabete arteko kartzela edota 6 eta 12 hilabete arteko isuna eta lan sozialak. Gainera, urtebete eta 4 urte artean gidatzeko baimena kenduko zaio.

Arrisku larria

Arrisku larria eraginez gidatzen duenari 6 hilabete eta 2 urte arteko kartzela (lehen 3 eta 8 hilabete artekoa zen).

Gida-baimena bat batean kentzea

Ertzain edo polizi batek, norbaitek gidatzeko gaitasun fisikoa galdu duela antzematen badu, momentuan kendu diezaioke gida-baimena. Ondoren, medikuaren txostena edota egoera argitzeko froga praktikoa eska dezake, gida-baimena behin betiko kendu ala ez erabakitzeko.

Asegururik gabe gidatzea

600 eta 3.000 euro arteko isuna. Gainera, autoa erretiratu eta gordailuan geratuko da epe batez. Autoa berreskuratu ahal izateko, aseguruia egina dagoela erakutsi beharko da.

Joserra Senperena eta Ramon Agirre, “Zazpi gezur txiki” kontatzeko prest

Martxoan marka guztiak hautsi zituen “Kutsidazu Bidea, Ixabel” antzezlanak. Sarrera guztiak agortu egin ziren eta lagun askok kalean geratu behar izan zuten, antzerki ikusi gabe. Ez dakigu apirilaren 24ko emanaldiarekin gauza bera gertatuko den. Hori bai, sarrera doanekoa da, beraz, garaiz joan beharko da Udarregi Ikastolako aretora. Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak “Zazpi gezur txiki” izeneko saioa eskainiko dute bertan. Emanaldia 22:30etan hasiko da.

“7 gezur txiki” ikuskizunak antzerkia eta musika uztartzen ditu. Gezuraren apologia egiten da bertan. Horretarako, hainbat pertsonaiaren kontakizuna kontatu eta eta kantatzen da. Errutinat itota duen saltzailea, sexu-zaletasuna duen neska bat, telebistan eguraldia aurkezten duen emakume bat... Hainbat kontakizun eta hainbat kantu: abisatu gabe doaz batetik bestera. Balts antzeko bat haste-ko, balada pop bat, rap antzeko bat eta



DUELA BI URTE “ONDO ESAN BEHARKO” ANTZEZLANA ESKAINI ZIGUTEN. APIRILAREN 24AN, “7 GEZUR TXIKI” MUNTAIAREKIN DATOZ.

baita doinu folk ezagun bat ere, nahiz eta letra hankaz gora jarri duten.

Hori da “Zazpi gezur txiki”. Ikuskizun arina, zertxobait lotsagabea, baina umore

txarrik ez duena... Ordubate baino gehiagoz ikus-entzulea dibertitu nahi duen saioa. Ekitaldi hau Usurbilgo Udala eta Kutxarekin batera antolatu dugu.

Ez ahaztu apirilaren 24ko hitzordua: NOAUA!ko Batzar Orokorra

Hamaiketakoaren formularenak egin du. Jada ez da erakargarri. Martxoaren 27an NOAUA!ko bazkide guztiok hitzordu garrantzitsua genuen. Urteko Batzar Orokorra ospatzeko deia egina genuen, baina zuzendaritzako kideak baino ez ginen azaldu.

Honen aurrean, Batzar Orokorra apirilaren 24rako bigarren deialdi bat egitea erabaki dugu. Gai-zerrenda bere horretan mantentzen da, azken puntua izan ezik (hamaiketakoarena). Izan ere, apirilaren 24an arratsaldez bilduko gara, 18:30etan,



BATZAR OROKORRA UDARREGI EGINGO DA, 18:30ETAN HASITA.

Udarregi Ikastolako gela batean. Eta batzarraren ostean, denak antzerki saiora!

Udalekuak begibistan

Azken urteotan, Udako Kanpaldiak antolatu ditugu zenbait euskara talde eta kultur talderekin batera. Honakoan, hiru dira antolatu diren txandak:

1- Bernedon, uztailak 11-19. LH3, 4 eta 5. Matrikula: 210 euro.

2- Zangotzan, LH6, DBH1-2. Uztailak 2-11. Matrikula: 240 euro.

3- Adoainan, uztailak 2-14, DBH3-4koentzat txanda bat. Matrikula: 250 euro.

Matrikulazioa ospatzeko epea: apirilak 28, osteguna. Matrikulatzeko garaian erdia ordaindu beharko da eta gainontzekoa ekainaren 11 baino lehen. Informazio gehiago, NOAUA!ko egoitzan.

Matrikularen barruan honakoa sartzen da: aterpetxea eta janaria, garraioa, materiala, ekintza guztiak, aseguruua, begiraleen eta koordinatzaileen ordainketak...

Zumarte Musika Eskolako ikasleak Islandiara joango dira uztailean

Erreterriako Orereta eta Oinarri Abesbatzak izango dira Zumarteko enbidaialagun. Uztailean, Islandiako Kopavogur herrian antolatu den Nazioarteko Astea hartuko dute parte.

Erreterian, Andra Mari Kultur Elkarteak diren Orereta eta Oinarri Abesbatzak daude eta Usurbilen, berriz, Zumarte Usurbilgo Musika Eskolakoak diren Zumarte eta Zumarte Gazte Abesbatzak.

Orereta eta Zumarte Abesbatza 8-16 urte bitarteko ikasleek osatzen dute; eta Oinarri-Zumarte Gazte Abesbatza, berriz, 16 urtetik gorako gazteek. Abesbatza hauek Imanol Elizasu Lasaren

zuzendaritzapean ari dira lanean.

Behin baino gehiagotan, abesbatza talde batek besteren beharra izan du: ahots konkretu bat indartzeko premia izan denean, edota talde handiago bat sortu behar izan denean. Era berean, asko izan dira bien artean burutu dituzten trukaketa-kontzertuak, talde guztiek zuzendari bera izateak elkarri laguntza emateko aukera erraztu eta bultzatu baitu.

Hau guztia ikusita, eta aurrerantzean sor daitezkeen proiektuei erantzun ahal izateko, bi abesbatzen zuzendaritzak elkartu eta elkarlanerako hitzarmena sinatu dute koruak elkartuz eta osatuz, helburu jakin batzuek lortzeko asmoz, hau da: kalitatea hobetu, kontzertu ezberdinetara bi herri desberdinen orde-



ORERETA ETA OINARRI ABESBATZETAKO KIDEEKIN BATERA ARITUKO DIRA ZUMARTEKO GAZTEAK.

karitza eraman, bakoitzak dituen baliabideak aprobetxatuz, mota ezberdineko proiektuak gauzatu, abesbatzetako haur eta gazteak elkar ezagutu, esperientzia handitu eta beraien arteko lan-taldeak osatu eta indartu.

Europa Cantat izeneko jaialdian arituko dira zuzenean

Europako Gazte Abesbatzen Federakundea 1960. urtean sortu zen Ginebran (Suitza), nazioarteko elkartrukea eta elkarlanen antolaketei egitura finkoa emateko xedearekin.

Ekitaldi hezitzaileak antolatzea da Federakundeak duen zeregin nagusietakoa: nazioarteko asteak antolatu, abesbatzetako zuzendari eta musikagileei zuzendutako mintegi internazionalak sustatu, errepertorio trukaketak erraztu, argitalpenak, musika garaikidearen eta abeslari gazteen sustapena, musikagile gazteentzako (30 urte

baino gazteago) Nazioarteko Lehiaketak bultzatu...

Aipatzekoa da 2004an haur eta gazteen abesbatzentzat (12 eta 18 urte bitartekoak) bereziki antolaturiko Nazioarteko Astea, Islandian, Kopavogur herrian hain zuzen ere.

Bertan izango dira Zumarte-Orereta Gazte Abesbatzako kideak. Goizez, mintegi desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute gure gazteek. Eta arratsaldean, berriz kontzertuak eman, beste batzuenak entzun eta turismo pixka bat egin ahal izango dute.



**MIKEL
IZ GI E**

ELEKTZATE

11.04.2004

11.04.2004

ERREKALOKELA

UT ZE

ITZU

ETXK

OKTU K

K NGEL TU K

11.04.2004

ERRAZ IN

Igeltzer tza

11.04.2004

KLIN

11.04.2004

Iñaki Mujika, Zumarte Musika Eskola: “Gazteek ahalegin ikaragarria egin dute”

Zumarte Musika Eskolak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuen iaz Errenteriako Andra Mari Kultur Elkartearekin. Elkarlan hori Islandian irudikatuko da. Zumarteko ikasleekin batera, Andra Marikoak ere arituko baitira Europa Cantat jaialdian. Iñaki Mujikak, Zumarte Musika Eskolako zuzendariak, elkarlan honen eta Islandiako bidaiaren xehetasunak argitu dizkigu.

Errenteria-Usurbil arteko elkarlan hori zertan oinarritzen da?

Bi abesbatzek zuzendari berdina dute. Oso ondo ezagutzen ditu biak, eta teknika berdinarekin ari da lanean. Batzuekin eta besteekin abesbatza sendoa osatu da.

Egitasmoak ilusioa piztu du ikasleen artean. Nabarmena da, ezta?

Hori da garrantzitsua. Hainbeste urtetan solfeo ikasten, astean hainbeste egunetan abesbatzan entseatzen... Orain arte, Errenteriara, Andoainera edo Lezora atera izan gara. Eta hori oso ondo dago. Baina bi edo hiru bider eginda, azkenean hori ere oso ezaguna egiten da. Ikasturte hau prestatzen hasi ginenean, helburu bat jarri genuen. Maila hain ona edukita, beste irteera batzuetan hasi ginen pentsatzen. Duela bi urte, Kataluniara joan ginen. Abenduan, berriz, Guadalajaran izan ginen. Oraingoan, kanpora atera nahi genuen. Musika eskolan jaso ohi ditugun deialdi

guztien artean, Europa Cantat-eko aukera atera zen. Errenteriakoak ere animatu ziren eta informazioa eskatzen hasi ginen, aurrekontuak egiten, hegazkinen kontuak lotu... Dirulaguntzak jaso ditugu instituzioetatik eta baita enpresen mundutik ere. Eta gazteek ere lan ikaragarria egin dute. Hortxe ibili dira kamisetak saltzen, errifak egiten...

Erronka handia zen baina gazteek ahalegin handia egin dute. Oso serio entseatu dute, lan asko egin dute. Abenduan kontzertu asko egin genituen eta orain datorren egitaraua ere gogorra izango da. Asteburu bat kanpoan pasako dugu denok entseatzen. Zuzendarien lana ere handia izan da. Antolaketan gabiltzanok, Errenteriakoak eta gu, burubelarri aritu gara lanean. Baina orain lasai gaude, dena bideratuta dago eta ondo aterako da dena.

Azken aldiz Usurbilgo abesbatza bat kanpora atera zela, 1958an edo inguru horretan izango zen. Parisera joan ziren. Hori oraindik jendeak gogoan dauka. Garai hartan, Pariseraino joatea eta kantatzea ez zen erraza izango. Guk, denbora baterako, listoia altuago utziko dugu.



IÑAKI MUJIKA, ZUMARTEN DAGOEN PIANDA JOTZEN.

Matrikulazio kopuruak ere gora egin du nabarmen. Villa Pilar txiki geratu dela esan al daiteke?

1984 urte inguruan hasi zen Zumarte Musika Eskolaren ibilbidea, eta 1985. urtean etorri ginen etxe honetara. Etxebizitza bat zen eta konponketa txiki batzuk egin ziren. Diru askorik ere zen garai hartan. 20 urtez jarraian, lana serio egin da. Instituzioen laguntzarekin maila altua lortu dugu. Beste herri batzuetan instalazio majoak dituzte. Dugun ikasle kopurua kontuan izanda, proposamen bat egin diogu Udaletxeari. Aurten egingo den proiektu horrek esango du etxea berri behar den ala berria eraiki behar den... Asmoa hor dago eta uste dut merezi duela.

Ilusioz gainezka

Ilusio da nagusi Zumarte Musika Eskolan. Islandiako aukera suertatu zenean, ikasleak izan ziren gehien poztu zirenak. Geroztik, lan handia egin dute. 12 eta 16 urte bitarteko 60 gazte joango dira Islandiara. Hori guztia gauzatze-ko, baliabide handiak behar dira. Ikasleak ere burubelarri murgildu dira ahalegin horretan: kamisetak saltzen, errifak egiten...

Ez hori bakarrik. Maila on bat erakutsi asmoz, entsegu asko egiten ari dira.



ZUMARTEKO MUSIKA ESKOLAKOAK, DUELA GUTXI EGINIKO ENTSEGU BATEAN.

Jose Manuel Tiferen zuzendaritzapean

Irungo Musika Kontserbatorioko talde koraleko irakasle da eta orduz geroztik Euskal Herriko Federazioak antolatzen dituen Koru Zuzendaritzako ikastaroetan laguntzen du.

1994an, Andra Mari Abesbatzaren zuzendari titularraren izendatu zuten. Gaur egun, errekonozimendu handiko zuzendaria da Jose Manuel Tife. Zumarte-Orereta Abesbatzako gazteak, beraz, maila handiko gidaria izango dute Islandiako egonaldian.

“Ez dok Amairu” erakusketaren ondarea Udalaren esku geratu da

Apirilaren 2an sinatu zen Jexux Artze Taldea eta Udalaren arteko hitzarmena. Jexux Artze taldeak, iaz, Jexux zenaren urteurrenaren inguruan ekitaldi ugari antolatu zituen: “Ez dok Amairu” izeneko erakusketa, emanaldi eta kontzertuak, hitzaldiak, Jexux Artzeren biografiaren argitalpena... Gerora, Taldeak “Ez dok Amairu” izeneko erakusketako

hainbat material eta Xabier Lakak Artzeren oroimenez egindako eskultura Usurbilgo Udalari emateko borondatea azaldu zuen. Udalak esker onez hartu zuen taldearen eskaintza, eta bi aldeen artean hitzarmen hau sinatzea erabaki zen. Hitzarmena martxoan sinatzekoa zen baina Madrilgo atentatuaren ondorioz, ekitaldia apirilaren 2a arte atzeratu zen.



HITZARMEN-EKITALDIKO IRUDIAN, JEXUX ARTZE TALDEKO KIDEAK, UDAL ORDEZKARIAK ETA JEXUX ARTZEREN EMATZEA.

LASTER HASIKO DA PINTURA IKASTARO BERRIA

Apirilaren 19an hasiko da pintura dekoratzaile eta *trompe l'oeil* ikastaroa. Azaroaren 10a bitartean, Aginagako pintura tailerren garatuko da ikastaroa, goizeko 8:30etan hasi eta 13:30ak bitartean. Udalak antolatu du ikastaroa, INEM eta Europako Gizarte Fondoaren laguntzarekin.

Ikastaroa bukatu ondoren, ikasleak pintura lan ezberdinak egiteko gai izango dira, eta hori guztia teknika piktoriko desberdinen ikasketa praktikoarekin osatuko da.

Betebeharrak

Lanbidea gustuko duen edozein adinetako emakumezko edo gizonetzkoei zuzendua. Hautaketa elkarriketa pertsonala bidez egingo da.

Irakasleak

Xiker Goikoetxea
(ikastaro guztia)
Victor Goikoetxea
("Trompe l'oeil")
www.victorgoikoetxea.com

Ikastaroa

Apirilaren 19tik azaroaren 10a bitartean, Aginagako tailerren.

Salgai dira Lluís Llach kontzerturako sarrerak

Jexux Artze taldekoek iaz aurrera eraman zuten egitarau zabalak jarraipena izango du aurtengo maiatzean. Aurreko alean iragarri genuen bezala, Lluís Llach izango da aurtengo gonbidatuetakoa bat.

Maiatzaren 8an izango da gure artean, 22:30etatik aurrera, Oiardo Kiroldegian. Aurretik, 18:30ak aldera, txalapartariak eta albokariak saio berezia eskainiko dute herriko leku desberdinetan.

SARRERA NON ESKURATU?

Kontzertu honetarako txartelak 18 euro balioko dute (15 euro alde aurretik erosiz gero) eta apirilaren 1etik aurrera honako puntuetan eros daitezke:

Telekutxa: 943 411200

www.begira.com

Servikutxa

Usurbilen: Lizardi, Mahuka, Oiardo, Txirristra.

MAIATZAREN 4AN HITZALDIA

19:30etan, Usurbilgo Udarregi ikastolan, “Gazteri berria, kantagintza berria” izeneko hitzaldia eskainiko du Belen Oronozek. “Gazteri berria, kantagintza berria” liburua argitaratu zuen 2000. urtean. Bertan Euskal Kantagintza Berriaren (Ez dok Amairu) eta Nova canço Catalana-ren (Els Setze Jutges) arteko azterketa konparatibo bat egin zuen.

“Felix Aizpurua” III. Literatur Lehiaketa irekia izango da

Azterapenez bada ere, 2001 urteko lehiaketaren argitalpenak argia ikusi du azkenean. 2001eko edizioaren liburua zein 2004ko lehiaketaren oinarriak Ikastolaren bidez banatu dira. Dena den, ikasle ez den baten batek liburuaren ale bat jaso nahi badu, Udaletxean eskuratu ahal izango du.

2004ko edizioaren berrikuntza nagusia partehartze mailakoa izango da. Honakoan, lehiaketa irekia izango baita. Deialdia, beraz, Usurbilgo zein beste herrietako gazteei egin zaie, 8 eta 16 urte bitartekoei, hain zuzen.

III. EDIZIOAREN OINARRIAK

1. Lehiaketa honetan, 8 urtetik 16 urte bitarteko edonork har dezake parte:

- A taldekoak: 8-10 urte (LH 3-4)
- B taldekoak: 10-12 urte (LH 5-6)
- C taldekoak: 12-14 urte (DBH 1-2)
- D taldekoak: 14-16 urte (DBH 3-4)

BALDINTZAK

- a) Egilea usurbildarra izatea.
- b) Lanak euskaraz idatziak egotea.

c) Lanek originalak eta argitaragabeak izan behar dute.

d) Gaia librea izango da.

e) Partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake.

f) Aurkeztutako lanek behar besteko mailarik ez badute erakusten, sariak eman gabe gera litezke.

MAIATZAREN 18AN AMAITZEN DA LANAK AURKEZTEKO EPEA

a) Aparteko orri batean eta lanari grapatuta, datu hauek adieraziko dira: lanaren izenburua, egilearen izen-abizenak, jaiotako urtea, adina, helbidea, telefonoa, ikastetxea eta maila.

b) Lan bakoitzak egile bakarra izango du.

c) DBHko ikasleek lana ordenadorez idatzia aurkeztuko dute.

d) Udarregi Ikastolako ikasleek lanak Ikastolan bertan aurkeztuko dituzte. Gainerakoek, Udal Euskara Zerbitzura ekarri behar dituzte lanak.

Olerkiaren neurria librea izango da. Prosaren neurriak:

A taldekoak: 1 edo 2 orrialde.

- B taldekoak: gutxienez 2 eta gehienez 5 orrialde arteko lana.

- C taldekoak: gutxienez 2 eta gehienez 6 orrialde arteko lana.

- D taldekoak: gutxienez 3 eta gehienez 8 orrialde arteko lana.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 18an amaituko da.


2001 URTEKO LEHIAKETA LIBURU BATEAN

Udalak, berriki, Felix Aizpurua Bigarren Literatur Lehiaketaren inguruko liburua argitaratu du. Argitalpen honetan, 2001eko haur eta gazteen mailako prosa eta olerki esanguratsuenak bildu dira, sarituak zein aipamen berezia jaso zuten idatziak: guztira, 32 olerki eta idazlan.



Errauste-plantaren aurkako protestaldia

Urnietan, Lasarte-Orian eta beste hainbat herrietan bezalaxe, Zubietan ere hasi dira errauste-plantaren aurkako mobilizazioak. Apirilaren 8an egin zen protestaldia ez zen oharkabean pasa. Zubietan XXI instalakuntzen inaugurazio ekitaldian, erraustearen aurkako idatziak izan ziren nagusi. Gipuzkoan errauste-planta ezartzeko kokaleku ezberdinak ari dira aztertzen. Zubietar asko kezkatuta daude, errauskailua jartzeko lekuetako bat Zubietan izan daitekeenaren zurrumurrua bolo-bolo baitabil.



TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98



txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarteboak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 943 36 04 66

Aitor Alkorta eta Koldo Huegun mendizaleek Asia erdiguneko bi gailur egin nahi dituzte

Communism eta Korjenevskoy mendi-gailurak Asia erdigunean aurkitzen dira, Pamir izeneko mendilerroan. Hantxe kokatu dute begipuntua Aitor Alkorta eta Koldo Huegun mendizaleek. Uda partean abiatuko da espedizioa. Baina hori baino lehen, badute bestelako buruhausterik. Helburua gauzatzeko behar dituzten 10.000 euroak nola bildu.

Kamiseta-salmenta eta antzeko ekimeak martxan dira jada. Honen haritik, apirilaren 3an, lagun asko bildu ziren bazkaritan.

Egun hauetan, enpresa ezberdinekin ari dira hartu-emanetan. Nola lagundu? Arropan publizitatea jarritz, gailurreko argazkia enpresako irudiarekin eginez, diapositiba emanaldiak esponsorizatuz...

Informazio gehiago 645 735 570 telefono zenbakian.



APIRILAREN 3AN ESPEDIZIAREN ALDE ANTOLATU ZEN BAZKARIA ORDU TXIKIAK ARTE LUZATU ZEN.

Pamir mendilerroan barrena

Asia erdiguneko mendebaldean kokatzen da Pamir mendilerroa, *Communism* eta *Korjenevskoy* mendi-gailurren lurraldea.

Lurralde honek 120 mila kilometro karratuko azalera du. Lurralde honen ekialdean, 4.000 metroko altuera duten hainbat bailara kokatzen dira. Bertan, 5.500 metro bitarteko mendiak daude.

Mendebaldean, aldiz, 7.000 metroak gainditzen dituzten mendilerroak daude, tartean Aitor eta Koldoren

begipuntuan dagoena, Pamir izeneko.

Glaziarrak ere badira Asia erdigunean. Pamir inguruan, hain juxtu, munduko glaziarririk luzeena aurkitzen da, Fedchenko izeneko eta 77 kilometrokoa.

Hilabete inguruko espedizioa izango da eta, arazorik ez bada, uztailean abiatuko dira.

Orain finantziario bila dabilta. Dagoeneko harremanetan dira hainbat talde eta enprekin.



JU NTX
ur n
k l n us l Usur l
S/

Kalkos kopisteria

Fotokopiak
Fotokopiak koloretan
Plastifikazioak (DIN A2)
Fax zerbitzuak (jaso-bidali)
Pantoneko kopiak (AO arte)
Ordenadoreko lanak
Enkuesadornabetak (wire-a, kiriboiak, liburuak)
Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalca
20160 Lasarte-Oria Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Euskal Herriko Rally Txapelketako lehen bi lasterketak irabazi ditu Undiano-Lopez bikoteak

Txirrindularitzan hainbat urte egin zituen Xabier Undiano gazteak. Iaz, ordea, txirrindularitza alde batera utzi eta rally-en munduan murgildu zen. Oliver Lopez lasartearra du bide-lagun. Afizioak eta ofizioak batu ditu bi gazten hauen ibilbideak. Biak auto zaleak, biak Berriolako langileak.

Euskal Herriko Rally Txapelketan, R-12 mailan, jaun eta jabe dira. Lehen bi lasterketetan ez dute areririk izan. Xabier Undiano Txikierrin bizi da eta autoenganako afizioa txikitatik datorkiola adierazi digu: *“bizikletan hasi nintzen afizionatuetan, baina lanean hasi nintzenean utzi egin nuen. Iaz, hasi nintzen rally-etan, kotxea ekarri nuenean. Ordurarte ez nintzen sekula ibili, ez nuen mundu hau ezagutzen”*.

Asfalto gaineko lasterketak izan ohi dira. *“Iaz Peugeot 205 Rally-a genuen, zilindrada txikikoa eta beste maila*

batekoa. Aurten, Peugeot 205 GTI batekin gabiltza, 12-R mailan”, esan digu Xabier Undiano gazteak.

KIROL GARESTIA

Erruberak, gasolina, mekanika... gastuak handiak dira, eta diru-sarrerak eskasak. Beraz, afizio garestia hautatu du Xabierrek: *“Hala ere, gehien bat inskripzioetan gastatzen dugu. 25.000 pezeta karrera bakoitzeko, eta premioetan oso gutxi ematen dute”*. Hala ere, eurek dira gidari, eurek dira mekaniko. *“Eta esker-erak, tailerrera eramaten hasi beharko bagenu...”*, arrazoirik ez zaio falta Xabierri.



TXIKIERDIKO GAZTEA IAZ MURGILDU ZEN RALLYEN MUNDUAN. ETXE ONDOAN DUEN TAILERREAN EGOKITU DU IRUDIAN ABERTZEN DEN AUTOA.

Lehen bi lasterketak etxeratu ditu Undiano eta Lopez bikoteak, Berriolako langileak biak.

Urte bukaeran amaituko da Euskal Herriko Txapelketa. Ea hasi bezala, amaitzen duten: lehen postuan, alegia.

Udarregi Ikastolako alebinak, Gipuzkoako Txapelketan jaun eta jabe

Argazkian diren lau pilotariak Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketa irabazi berri dute. Bailarako kanporaketetan nagusitu ziren lehen lehenik, eta ondoren, eskualdeko azken fasean, txapeldun izan ziren.

Txapela Astigarragako pilotalekuan eskuratu zuten, apirilaren 3an Bidegoianen aurka jokaturako finalean. Irudian, pilotari irabazleak: Jokin Irastorza, Xabier Sancho, Julen Dorronsoro eta Ekaitz Arruti. Zorionak eta segi horrela!



L T ILL E


**ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K**

IZTITX K I.F.F.

(3) 3 2 35-3 33
M I 21



Presen Egileta




Lotu ezazu herri bakoitza dagokion mendiarekin

HERRIAK

DONOSTIA
 USURBIL
 URNIETA
 LASARTE
 ANDOAIN
 HERNANI
 ASTIGARRAGA
 ERRENTERIA
 PASAIA
 LEZO

MENDIAK

ADARRA
 MENDIZORROTZ
 ANDATZA
 BURUNTZA
 SANTIAGOMENDI
 SAN MARKOS
 AIAKO HARRIAK
 JAIZKIBEL



DONOSTIALDEA GURE ESKUALDEA

Hizkiak leku egokian jartzen badituzu, Donostialdeko ibaien izenak osatuko dituzu.

ELZINARA

--	--	--	--	--	--	--	--

ROAI

--	--	--	--

AMUREU

--	--	--	--	--	--

ONITZURA

--	--	--	--	--	--	--	--

MAHUKA

G z n t m k u m z k n
 m k r r u z t
 h m n u r k t u k u z u

Etx est k l , 3
 Tlf 33 11

LOLI IZARRALDE ilcapaindegi mixtoa
 Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa
 kontrolatuarekin.

Solarium-a, estetika, depilazioa
 manikura, manikura frantsesa,
 pedikura, eta makilajea.

Zulimuenza, 5b Telf: 943 36 19 71

Usurbil Autoak, S. C. L.
 Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
 Aitzearra kalea, 1
 20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
 Faxa: 943 36 62 92

GLG
 garraioak
 ZABOR BILKET

TELF: 943 37 01 46

NOAUA!ko LEHIAKETA!!

 **SARIA**

"BELARDI"
taldearen musika cd-a

SEN eta
HENDRIK ROEVER en
musika cd-a

ANARI eta **PETTI** ren
musika cd-a



Animatu eta parte hartu Noauako lehiaketa ikusgarrian! Hiru cd zoragarri hauek zozketanuko ditugu bi galdera hauek ondo erantzuten dutenen artean.

1. Zein da Noaua! hamaboskariko 19. zenbakiko azalean agertzen den lekua?
a) ARRATZAIN b) ANDATZA d) TXINDOKI
2. Eta zure ustez zer ari dira ospatzen bertan agertzen direnak?
a) SAGARDO EGUNA b) SAN ESTEBAN EGUNA
d) ANDATZA EGUNA

ERANTZUNAK BIDAITZEKO AZKEN EGUNA

APIRILAK 25

Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea,
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Noaua! Kultur Elkartearen buzetan
E maila: erredakzioa@noaua.com

179. lehiaketarako erantzunak banek dira:

1. Nor da "El libro Negro del Fuskera" liburu ezagunaren egilea?
JOAN MARI TORREALDAI
2. Eta egilea nor den baldin badakizu, esango al diguzu zein urtetan jaio zen? 1942

Trabazlerik ez dago. Inork ez ditu aurreko bi galderak asmatu. Zailak al ziren ba? Ea oraingo honetan asmatzen dituzuen. Sari hau hurrengo baterako utzi beharko dugu.



Har ezazu parte "Gipuzkoa Zure Esku" mahai-jokoaren zozketan


Elhuyar edizioak argitaratu du "Gipuzkoa zure esku" izeneko mahai-jokoa. Funtsean, gazteei zuzenduriko jokoa da, aisialdian euskaraz aritzeko Elhuyar Fundazioak egin nahi digun eskaintza paregabea.

Mahai-joko honek (CD Rom batekin ere osatzen dena) bi ardatz nagusi ditu:

- "Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzaileen aurka". Gipuzkoa zeharkatzen duen abentura grafikoa da.
- "Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa", mahai-jokoa. Bakarrik ordenagailuan, nahiz familiarekin edo lagunekin jolasteaz gain, joko honek Gipuzkoa osoa ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Apirileko irabazlea, Jon Mikel Azpiazu

Martxoko zozketa Haritz Lizarraldekin irabazi zuen. Apirilean, Jon Mikel Azpiazu izan da zortea alde izan duena. Zorionak eta gainontzekoei, animo! Beste mahai-joko gehiago ditugu-eta. Aldameneko galderari erantzun egokia bilatu eta akaso maiatzeko jokoa zurea izan daiteke. Gogoan izan erantzunak bakarrik e-postaz jasoko ditugula: erredakzioa@noaua.com.



MAIATZEKO GALDERA

Gipuzkoako babarrun ezagunenak zein herritakoak dira?

Erantzuna: _____ (erredakzioa@noaua.com helbidera bidali)

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05	17.15	17.40
18.00	18.25	18.35	18.55	17.45	18.05		18.30
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.20	19.25**		18.45	19.05		19.30
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05	19.15	19.40
19.40		20.05	20.25		19.30	19.35	20.00
20.00	20.20	20.30		19.45	20.05		20.30
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.20	21.25	21.45	20.45	21.05	21.15	21.40
21.00	21.25	21.35	21.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.15	22.35	22.45	23.05	21.45	22.05	22.15	22.40
22.00	22.25	22.35	22.55		23.15	23.35	00.00
22.30	22.55	23.05	23.25	01.15	01.35		02.00
00:00		00.25	00.45	03.15	03.35		04.00
02:00		02.25	02.45	05.15	05.35		06.00
04.00		04.25	04.45				
06.00		06.25	06.45				

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaara

*Aiatiak dator / Asteburutan
 ■ Soilik / Larunbat
 ■ larunbata gauetz / lanegunetan

Goardiako farmaziak

Apirilak 16, ostirala
E/G: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
E/G: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte

Apirilak 17, larunbata
E: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 18, igandea
E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 19, astelehena
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Apirilak 20, asteartea
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Oa, Kontzeju Zaharra 1 Usurbil

Apirilak 21, asteazkena
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Tanko, Idiazabal 39 Urnieta

Apirilak 22, osteguna
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

Apirilak 23, ostirala
E: De Miguel, Nagusia 32 Lasarte
G: Gomez, Nagusia 14 Hernani

Apirilak 24, larunbata
E: Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
E/Egunez G/Gauetz E/G/Egunez eta gauetz

Apirilak 25, igandea
E/G: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte

Apirilak 26, astelehena
E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Chucla, Kardaberaz 48, Hernani

Apirilak 27, asteartea
E: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
G: Correa, Perkaiztegi 8 Hernani

Apirilak 28, asteazkena
E: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte
G: Aizpuru, Latxunbe Berri 11 Hernani

Apirilak 29, osteguna
E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Etxebeste, Elkano 9 Hernani

Apirilak 30, ostirala
E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Bilbao, Urnieta 7 Hernani

Maiatzak 1, larunbata
E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 2, igandea
E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

2004ko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Apirila						
As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) 36 38 95
- Oiardo kiroldetgia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldikaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen, konpartitzeko. 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 902762.
- Pisua alokatu edo konpartitu nahi nuke. 647 973 844.
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatu nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian: 30 m-koa, 18.000 euro. 15 m-koa, 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.
- Citroen Saxo gorria salgai. 60.000 km, 7 urte. Garajejan zaindua, motorra eta txapa egoera oso onean. 943 36 56 10.
- NITRO markako snoweko fijazioak dauzkat salgai, prezio interesgarria. Interesatuak deitu 653728059

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Umeak zainduko nituzke, edozein ordu-tegian. 943 37 10 32.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Deitu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko

lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.

- Umeak zainduko nituzke, arratsalde bi orduz. 647 220 966 (Mari Karmen).
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Martxan jartzeko prest dagoen kopia-gintza eta grafika zerbitzuetako negozio batetarako sozioak behar dira (neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf: 687470177.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Monopatina galdu dugu, Aginagan edo Zubiaurrenea kalean. Aurkitu baduzu, deitu mesedez 943 36 58 50 telefono zenbakira.
- Ume baten txamarra gorri bat galdu da Kaxkoan. Aurkitu baduzu deitu: 943 360 659.
- Otsailaren 26an kolpea eman zidaten kotxean, Bordaberri Kalea eta Artzabalgo etxeen artean aparkatuta zegoen Renault Espace berdean. Argibiderik baduzu deitu iezadazu mesedez: 943 36 32 90.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Kaxkoan. Topatu baduzu deitu 943 360643 telefono zenbakira.
- Duela gutxi koilarea galdu nuen Iturralde botikatik kaxkora bidean. Topatu baduzu deitu 943 36 11 15 telefono zenbakira.

- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean egina ahaztu genuen. Topatu baduzu deitu: 943 37 20 34.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Munalurra auzoan (Olarrondo inguruan). Topatu baduzu deitu: 943 36 27 79.
- Zilarrezko brotxe bat galdu nuen San Esteban kaletik, okindegia eta supermerkatu bidean. Topatu baduzu deitu 943371237 telefonora.
- Neska bat eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 943364659 telefono zenbakira. (Arantxa)

Zorionak Koro!

Apirilaren 14an, Egun Berezian, 12 urte egin zenituen. Zorionak eta muxu handi bat etxeko-en partez.



HERIOTZAK

Miguel Carranza Calleja.

2004ko martxoaren 17an. Santuenea.

* Usurbilgo Bake Epaitzegiko datuak.

Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

NOAUA! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

Menuak astean zehar eta
ZENDOIA
taberna
Kale nagusia 35
Telf. 943374021
asteburutan menu bereziak

H n k n U z n n, s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NI NI E N L UIZ E

K I M U S , 2 I C
Tlf 3 37 7

2 17
USU IL

IGELTSE ITZ
t
INTU

94 37 11 7 5 3 5 5
2 1 37 21 3

I Its r tz

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

PATRI

JATEITXIA

- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitarrekak

Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

USURBIL TABERNA

- Plater konbinatuak
- Pintxo beroak
- Sandwich-ak
- Ogitarrekak

Bordaberri 6, Telf. 913 36 07 63

Agenda !



APIRILAK 19, ASTELEHENA

- Pintura dekoratzaile eta *trompe l'oeil* ikastaroaren hasiera. Aginagako pintura tailerlean, egunero, goizeko 8:30etan hasi eta 13:30ak bitartean. Antolatzailea: Udala. Laguntzaileak: INEM eta Europako Gizarte Fondoak. Informazio gehiago: 943 37 19 51.

APIRILAK 23, OSTIRALA

- Jazz Kalean, 22:30etan, Morau Ta Agotak taldearen "Txukalda" diskoaren aurkezpena.

APIRILAK 24, LARUNBATA

- NOAUA!ko Batzar Orokorra, Udarregi Ikastolako gela batean. 18:30etatik aurrera.

APIRILAK 24, LARUNBATA

- "Zazpi gezur txiki" antzezlanaren Udarregi Ikastolako aretoa. 22:30etan, sarrera doan. Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea, Usurbilgo Udala, Kutxa.

APIRILAK 28, ASTEAZKENA

- Udako Kanpaldiak. Matrikulazioa osatzeko epea: apirilak 28, osteguna. Matrikulatzeko garaian, erdia ordaindu beharko da; eta gaintzeko, ekainaren 11a baino lehen. Informazio gehiago, NOAUA!ko egoitzan.

KzGunea

OINARRIZKO INTERNETA (20 ordu)
 Apirilak 19-30, goizez, 11:00-13:00.
 (Gaztelaniaz).

NAGUSIWEB (10 ordu)
 Apirilak 27-maiatzak 3, goizez, 9:00-11:00.
 (Euskaraz).
 Apirilak 26-30, arratsalde, 18:00-20:00.
 (Euskaraz).

AZTERKETAK
 Apirilak 23 ostirala, arratsalde, 18:00-20:00. "IT Txartela".

Literaturaren txokoa !



"Eguzki beltzaren sekretua", espioitzazko thriller horietakoa

Hizpide du-
 gun liburu-
 a espioitzazko
 thriller klasiko
 bat da, irakurlea
 nazien Alema-
 niara daramana
 eta bere trama
 zirraragarrian katigatuta edukiko
 duena; hala ere, baditu ukitu fantas-
 tiko eta are esoterikoak ere, nortasun
 berezia ematen diotenak: zertara
 joan da SSetako espedizio bat
 Tibetera? Zer misterio ezkututzen
 du Wagnerri buruzko espezialista
 den ofizial nazi horrek? Zer lotura
 du horrek guztiak Mundu
 Gerrarekin?



riak ditu Ladron Aranaren nobela
 honek: dokumentazio zorrotza,
 giroz bikaina, pertsonaien psiko-
 logia berezia, maisuki jositako haria,
 idazkera arina, erritmo ongi neur-
 tua. Horri, eta liburua zipiztintzen
 duten ukitu fantastikoei esker, ira-
 kurlea hasieratik amaieraraino bizi
 bezain gozo eramaten duen lana
 burutu du egileak. Eta hondarlean
 galdera zentzugabe bat piztuko zaio
 agian: hau dena sinestezina da
 baina, halako zerbait izan balitz?

Fitxa teknikoa

Egilea: Alberto Larrañaga
 Bilduma: Elkar
 Orriak: 320 or.
 Salneurria: 18,40 euro
 Data: 2004ko apirila

Egin kontu !

Hemen da Andatza Eguna

Maiatzaren
 2an izango
 da aurtengo Andatza
 Eguna. Iaz bezalaxe,
 zizrukildarrek ere
 egunaren antolake-
 tan hartuko dute
 parte. Lehen bilera martxoaren
 erdialdean egin zen. Zizrukildik,
 udal ordezkari bat, kultur teknika-
 ria eta Ziortza Mendi Elkarteko
 kideak izan ziren lehen bilera
 horretan. Andatza elkarteko kide



bat, Maite Iribiar
 kultur teknikaria
 eta Ibon Beristain
 Soziokulturako
 zinegotzia izan
 ziren Usurbilgo or-
 dezkarriak.

Funtsean, mendi festak honek
 garai batean izan zuen oihartzuna
 berreskuratu nahi da.

Ea eguraldiak ere laguntzen
 duen. Datorren alean emango
 ditugu xehetasun gehiago.

TXU UT



r t

t musk ts n

San Esteban, 11/33



Urtinea

I r k - I r l n r k

L r s r t k - K r k

San Esteban
 Tlf.: 943 36 22 55

UDAKO KANPALDIAK 2004



Matrikulazio epea: Apirilak 28

LEKUA	DATA	NORENTZAT	PREZIOA
Adoain	Uztailak 2-14	DBH 3-4	250 euro
Zangotza	Uztailak 2-11	LH 6/ DBH 1-2	240 euro
Bernedo	Uztailak 11-19	LH 3-4-5	210 euro

OHARRAK

- Matrikula bi zatitan ordaindu daiteke: izena ematerakoan eta ekaina hasieran.
- Beste herri batzuetako haurrak ere joango dira: Elgoibarkoak, Soraluzeokoak, Ordiziakoak, Lasarte-Oriakoak,...
- Plaza-kopurua mugatua da. Beraz, matrikulatu gehiegi izanez gero, matrikulazio ordena hartuko da kontuan.

Informazioa eta izen-emateak:

NOAUA! Kultur Elkartea

Bordaberri, 3

Telf: 943 36 03 21

“Zazpi gezur txiki”

Ramon Agirre eta Joserra Senperenaren eskutik

NOIZ

apirilaren 24an, larunbata

NON

Udarregi Ikastolako aretoan

ORDUA

22:30etan

SARRERA DOAN

ANTOLATZAILEAK:

NOAUA! Kultur Elkartea

Usurbilgo Udala

Kutxa



Edertu zaituz

herriko ileapaindegietan



Biker ILEAPAINDEGIA

Solariuma eta depilazioak

Etorri aurretik ordua eskatu
Kale Nagusia, 2 Telf: 943 37 28 44



Elexpe ileapaindegia
ESTETIKA ZENTROA

- Tatuak
- Solarium-a :
.8 min, zutikakoa
.20 min, etzanda

Muna lurra, 2
Telf: 943 370462



LOLI IZARRALDE ileapaindegia

Teknika eta joera berriak kolore, mozketan eta onrazkeran. Estetika solarium bertikala.



Zubiaurrenea, 5-B Telf: 36 19 71

Txaro ileapaindegia

Buru azalaren zainketa
Ile apainketa



Etxebeste, 3 - Telf: 943 371685



SOLARIUMA
MAKILAJEA
DEPILAZIOAK
MANIKURA



N•I ILEAPAINDEGI MISTOA

943 36 19 51 Zubiaurrenea, 5

Lourdes Larrañaga
Estetika zentroa

- Aurpegiko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa
- Zera bidezko depilazio
- Depilazio laser medikuarekin



Telf: 943 36 28 87 Irazu kalea, 12

INTZA ile apaindegia

Solarium-a, depilazioak, manikura, pedikura, makilajea



Depilazio osoa: %10eko DESKONTUA

Kale nagusia, 8 Tlfnoa.: 943 36 36 41 20170 USURBIL

